

Jira

Uxue Apaolaza

Koadroa

S an Isidro eguna ostegunetz Madrilen, eta turismo folklorikoari lotu gintzaizkion. Iritsi ginen ospakizunera. Bi oihal handi ikusi genituen lehenik, «ez gara etorri izanaz damutuko»; oihaletan bi koadroren erreproduktzioa. Goyaren maiatzaren 3ko fusilatuen zen bat, eta besoak zabalik, hiltzera doanaren aurpegia hutsunea zen; umeak, helduak, irribarretsu agertzen ziren zulotik kamerari

begiratu eta klik, argazkia ateratzeko. Zenbat bider ikusi ote dugun koadroa hunkituzetik milaka kilometrora maiatzaren 2az geroztik; dagoeneko ez dakigu argiztaturik agertzen den gizona fusilatzen ari diren, edo besarkada bat ematera doan aspaldi ikusi ez duen lagun bati. Mila bider ahoskatutako poemak bezala, husten da koadroa ere poster egiten dugunean. Musikaz lagunduta, grabatutako oihuez, edo eraikinetan proiektaturik agertu dute.

Ez dakit leku onena den, baina beharbada Pradora itzuli beharko dut koadroarekin berrelkartzera; isiltasun pixka batekin, ea posible den orain bi dimentsiora mugatu duten koadroari, lehen aldiz ikusi nuenean sentitu nituen dimentsioak itzultzea. Beharbada ezinezkoa da, beharbada hobe erre izan balute, beharbada erakustearren erakusteaz desagerrarazi dute. Beharbada gaur egun ia dena bezala, koadroa hori baizik ez da orain; azala.

Bira

Amagoia Iban

Hartzaren Eguna

A ntzoa Eguna gaur Ondarroan. Bertako antxoarik gabe, jakina. Orion bisigurik gabeko Bisiguaren Eguna aspaldidanik ospatzen dute, zer nahi duzue esatea, eta horretara ere egin gara. Beharko, ez daukagu eta nori kexa agertu, geure buruari besterik. Ez dira gaurkoak, esate baterako, ontzia antxoaz bete, etxera bueltan abiatu, porturako bidean antzoa sarda izugarria aurkitu, ontzi

barrenekoak kareletik bota, eta sarea berriz botatzen zizuteneko ipuinak. «Arrain freskoagoa ekartzearren», bukatu ohi zuten beti ipuin kontalariek. Eta Hegaluzearen Eguna ere paneka janez ospatuko omen dugu laster. Eta paneka bukatzen zaigunean, asma-tuko omen dugu beste zerbait konpultsiboki harrapatzeko eta kontsumitzeko. Hori bai, gure eko-kontzientziari sasoi ezin hobean eutsiko diogu beti, aldiari aldiko arketei esker. Orainxe bertan asaldatuta sentit gaitzke, esate baterako, AEBetako agintariak hartz zuria desageratzeko zorian dauden animalien zerrendan sartu berri dutela entzutean —beranduegi iruditzen zaigulako, bai—, zerrendan sartu arren animalion aldeko inongo neurririk ez dutela hartuko jakitean. Guk inoiz egingo ez genukeen zerbait egin berri dutelakoan. Hartz Zuriaren Eguna antolatzeke gauza izan ez direlako edo.

Homofobiaz betetako urtea

Koldobike Mujika
Sergio Iñiguez

Gehitu-ko koordinatzaileak

H emezortzi urte igaro dira OME Osasunerako Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasun mentalen katalogotik kendu zuenetik. Hemezortzi urte hauetan, gay eta lesbianak gaixo mentalak izateari utzi eta eskubideak eta berdintasuna eskuratu zuten dira Europako herrialde batzuetan; baina ez da gauza bera gertatzen herri guztietan. Homofobia eta transfobiaren alorrean aurrerapenak egin diren arren, mundu honetan oraindik ere giza eskubideak urratu egiten dira, orientazio sexuala edota genero identitatea dela eta.

2007ko maiatzean, poliziaik Honduraseko Nahomy Otero trabestia atxilotu eta kolpatu zuten. Arrazoia hauxe izan zen: San Pedro Tokiko Poliziako koronelaren ustez, Nahomyk ez zuen hiririk ibiltzeko eskubiderik hiria «jende normal eta zintzoarentzat» baitzen.

2007ko ekainean, bonba bat ipini zuten Bolivian egindako lesbiana, gay, transexual eta bisexualen harrotasunaren manifestazioan; sei lagun zauritu ziren atentatuan.

2007ko uztailean, homosexualitateagatik bere herrialdetik ihes egin eta Frantzia errefluxiatu zen 21 urteko irandar gazte bat Iranera deportatua izateko zorian egon zen. Kontuan hartu behar da bere

herrialdean ezin izango ziola heriotzari ihesi egin.

2007ko abuztuan, Pegah Emambakhs lesbiana irandarra Ingalaterran atxilotu zuten Iranera deportatzeko asmoz. Gogoratu behar da Pegah Emambakhs bere herrialdetik ihes egin zuela bere bikotekidea, beste emakume batekin harreman afektiboa izateagatik atxilotu, torturatu eta harrikatuz hiltzera kondenatua izan zenean. Bere herrialdera bueltatuz gero, Emambakhs bikotekidearen zori berbera egokituko zitzaion.

2007an, Pelusa Liendre transexual argentinarra baldintza zalantzagarrietan eraila agertu zen, biktimatik poliziaren jipoiak eta estortzioak salatu ondoren. Krime-na oraindik ere argitu gabe dago, nahiz eta segurtasun indarrak susmopean egon.

Baina ez dugu zertan horren urritu joan. Hilabete honetan bertan, Frantziako hiritar batek bere nazionalitatea galdu du Herbehereetan beste gizon batekin ezkontzeagatik. Egoera hori ez litzateke inolaz ere gertatuko ezkontza sexu ezberdineko bi pertsonaren artean gertatu izan balitz.

2008ko apirilean, Kataluniako nerabe lesbiana batek ikastetxez aldatu behar izan zuen, hiru hilabetez bere ikaskideen jazarpena eta erasoak jasan ondoren.

2007ko abenduan, David izeneko hemeretzi urteko homosexual gazte batek beste hiru mutilen erasoak salatu zituen: eraso on-dorioz, ubeldurak eta bi kontraktura (hankan eta lepoan) izan zituen.

2008ko maiatza, Jerezeko FERIA: hiru gazte beste gazte batzuei galdetzen diete *Jerelesgay* homosexual eta transexualen el-

kartearen txosna. Beste talde batetik elkarriketa entzun eta «*maricones*» eta «*te voy a matar*» garrasi egin ondoren, txosnaren kokalekuaz galdetzen zuten gazteak jipoitu egin zituzten.

Horiek guztiak munduko lesbiana, gay eta transexualen errealitatearen adibide soilak beste-rik ez dira.

Aipatutako kasuak ezagunak dira protagonistek eskubide urraketa horiek salatzeke auserdia izan dutelako edota elkarre eta komunikabideetara iristen diren kasuak direlako. Baina gogoa hartu behar dugu salatutako eraso bakoitzaren atzean beste asko ezkutatzen direla, jendea beldur delako edota homosexualitate edo transexualitate ez delako era normal eta ikusgai batean bizitzen.

Arazoak jabetu behar dugu, izan ere, giza eskubideen urrapen onartezinak baitira.

Aipatutako kasu horiek guztiak eta hemen jaso ezin daitezkeen beste askok kezkatzen gaituzten arren, bereziki larri iruditzen zaigu gure ingurunean salatzen diren ahozko eraso eta eraso fisiko gehienak gazte eta nerabeek egitea beste gazte eta nerabeen aurka. Gizarteak egoera honetaz jabetu behar du, eta arazoa konpontzeko neurriak hartu behar ditu. Aita eta amek, hezitzaileak, agintari politikoek, elkarre, gizarte eragileek, giza eskubideen defentsarako erakundeek... guztiok ezagutu behar dugu errealitate hau eta neurri zuzentzaileak aplikatu.

Neurri horien artean bi hauek aipatu daitezke: homosexualitate modu normal batean ikusgai jartzea eta ume, gazte eta nerabe-berdintasunean, duintasunean, errespetuan, tolerantzian, aniztasunean eta abarrearren oinarritutako hezkuntza bat eskaintzea. Argi izan behar dugu erasoak jasaten dituztenak gure gizartearen kide direla eta haien osotasun fisikoa eta beren eskubideak bermatu behar ditugula. Gainera, jakin behar dugu, azken urteetan egindako aurrerapen legalei esker, gure herrialdea munduan erreferente bilakatu dela beren herrialdeetan jazarpena jasaten duten milioika lesbiana, gay eta transexualentzako. Horietako batzuk guregan etorri dira babes eta laguntza eske, eta are gehiago etorriko dira jatorritako baldintza ezkorrak mantentzen diren bitartean.

Gure agintariei ikusarazi behar diegu bestelako agintari batzuen ustez orientazio sexualari eta genero identitateari erostzea onargarria dela, eta jarraitu beharreko gai bat dela. Horregatik, iruditzen zaigu erasoak jasaten dituzten pertsonen babesa eta asiloa eskaintzeko aukera legean jaso behar dela.

Gainera, nazioarteko bestelako erakunde guztiekin lan egin behar dugu, baita beste estatuekin aldeko harremanak sortu ere, munduan dagoen izurri hau desagerrarazteko, zeinak lesbiana, gay eta transexual asko ostrazismo, jazarpen eta, askotan, heriotzara kondenatzen dituen.

Homosexualitate modu normal batean ikusgai jarri behar da, eta ume, gazte eta nerabeei berdintasunean, duintasunean, errespetuan, tolerantzian, aniztasunean eta abarrearren oinarritutako hezkuntza bat eskaini behar zaie

berria

Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Zuzendariordea: Xabier Makazaga
Edizio arduraduna: Lurdes HuiziArgitaratzailea: Euskal Editorea, S.L.
Publizitatea: Iragarri, S.L.
Lege gordailua: SS-0662/03
Batzorde parekidea: 071218/059
Egoitza nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea.
Cudarien Etorbidea 2/g. 20140 Andoain.Telefonoa: (0034) 943-3043030
Faxa: (0034) 943-300943
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@iragarri.net
Harpidetza salla: (0034) 943-304345Data: 17/05/2008. Exempleaire: 1.525
Editur: Euskal Editorea S.L.
Directeur de publication: Martxelo Otamendi
Comission paritaire: 071218/059
Delegation Labourd: Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559255220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.infoORDEZKARITZAK. Araba: Bizenta Mogel 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-150452. Erredakzioa: 945-148307. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte Kalea 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-4352600. Erredakzioa: 94-4234975. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. Nafarroa: Irabekiko Monasterioa 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-366622. Publizitatea: 948366623.
Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. Lapurdi: Lisses 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559255220. Faxa: 559254303. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info